



BITREKTROMIA-EBAKUNTZAREN ONDORENGO ZAINTZAK

Ebakuntzaren ondoren, baliteke ikusmen lausoa izatea. Pixkanaka hobetuko zaizu ikusmena, ebakuntzaren ondorengo asteetan (hilabeteetan, agian). Gogoan izan: ebakuntzaren aurretik zegoen kaltearekiko proportzionala izango da lortzen den ikusmen-hobekuntza.

LEHEN HILABETEAN:

- Ez egin ahalegin fisikorik, ez altxa zamarik.
- Ez ibilgailurik.
- Saiatu animaliarik ez ukitzen eta landako lanik ez egiten.
- Ibili kerik eta hautsik gabeko giroetan.
- Ez bainatu igerilekuan eta itsasoan.
- Ez makillatu begiak.
- Ebakuntza egitean gasa sartu badizute:
 - Ez bidaiatu hegazkinez, eta ez igo 800 m-tik gora harik eta zure gorputzak gas hori xurgatu arte (jarraitu oftalmologoaren aginduei).
 - Paziente batzuek jarrera jakin batean egon behar izaten dute (normalean, ahuspez), hainbat denboraz (aldakorra, kasu bakoitzaren arabera). Bete beharreko jarraibide individualizatuak jasoko ditu pazienteak.
- Baldin eta honako sintoma hauetakoren bat nabaritzen baduzu, goizez eta lanegunean Oftalmologiako kontsultako mostradorera joan beharko zara, eta Santiagoko larrialdi orokorretara, berriz, ordutegi horretatik kanpo:
 - Min handia sumatzen duzu, kirurgiaren ondoko 24-48 orduetan ez bezala.
 - Ikusmenaren bat-bateko murrizketa; lehen ez zenezkan orbanak edo lerroak agertzea.
 - Jariakin ugariak edo horixkak.

TRATAMENDUA: Ebakuntza ondorengo lehen astean hau eman behar da ebakuntza egin zaion begian, lo-orduak errespetatuta:

- **Tobradex®** kolirioa:
 - Lehen astean tanta bat lau aldiz egunean.
 - Bigarren eta hirugarren astean, tanta bat bi aldiz egunean.
- **Tropikamida®** kolirioa:
 - Lehen astean tanta bat hiru aldiz egunean.
 - Bigarren eta hirugarren astean, tanta bat bi aldiz egunean.
- Bi kolirioak ordu berean hartu behar badituzu, utzi bost minutuko tarte batetik bestera.
- Ebakuntzarik izan ez duen begian jarraitu ohiko tratamendua, halakorik izanez gero.

Normala izaten da min pixka bat sentitzea ebakuntzaren ondoren eta handik egun batzuetara ere. Mina aritzeko, hartu alta-txostenarekin batera emandako medikazioa.